

# HIZTEGI BATUA

## Lanketa-eta onespen-prozedurak

*Sara, 1991-XII-20*

*Ibon Sarasola, Hiztegitzinta-Batzordearen burua  
Mikel Zalbide, Hiztegitzinta-Batzordearen idazkaria  
Miren Azkarate, LEF azpibatzerdearen burua  
Jose Antonio Aduriz, LEF azpibatzerdearen idazkaria  
Andoni Sagarna, EEBS azpibatzerdearen idazkaria  
Iñaki Segurola, OEH azpibatzerdekoa*

### 1. Txosten honen helburua

Laurgainen, 1991ko azaroaren 11an eginiko III. Hiztegitzinta Jardunaldietan, Euskaltzaindiak euskal hitz-altxorren berrikuntza-lanean izan behar lituzkeen eginkizun eta jardupideez, euskara batuko lexikoaren plangintzaz eta EEBS proiektuaren 2. faseaz txostenak eta bilkurako partaideen iradokizunak entzun ondoren, Euskaltzainburuak Hiztegitzinta-batzordearen eskuetan utzi zuen etorkizunean egin beharreko Hiztegi Arauemaileranzko bidean prestatu nahi den hitz-zerrenda lantzeko eta onesteko prozedura proposatzea. Mandatu hura betetzeko ekarpenak egi-tea da txosten honen helburua.

### 2. Hitz-zerrendaren xedea

Bat gentozen Laurgainen bildu ginen denok euskararen batasunak hiztegi-arloan aurrerapauso sendoak emateko premia larria eta aukera ezin hobea dituela baieztatzean. Euskara eskola-munduan, komunikabi-deetan, administrazioan eta gizarteko hainbat sailetan sartu eta euskaraz-ko argitalpenak hainbeste ugaritu izanaren ondorio dira premia berri horiek.

Haziminak ditu euskal hiztegiak. Nerabegaroko duda-muda eta zalantzetan murgildurik bezala dabil. Euskaraz idazten dugunok behintzat halaxe gabilta. Ez dakigu nola idatzi *alor* ala *arlo*, *itsasontzi* ala *itsasun-*

*tzi, ihardun* ala *jardun*, *argitarapen* ala *argitalpen*, *analisatu* ala *analizatu*, *azkazal*, (*h*)*atzazal* ala *azkazal*, *iruzkin* ala *irazkin*, *ebaluaketa* ala *ebaluazio*, *etab.*, *etab.*

Alabaina, zalantzak zalantza, inoiz baino egoera hobean gaude hiztegi batua lantzeko, inoiz izan ez dugun informazioa dugulako gaur egun literatur tradizioaz (OEH) eta erabilera garaikideaz (EBBS). Hala uste dugu behintzat batasunaren oinarria batez ere iturri horietan bilatu behar dela pentsatzen dugunok.

Eratu nahi dugun hitz-zerrendak, bai edukinaren izaeraz, bai tamainaren aldetik, euskaraz eta idatziz egunero diharduten gaurko ikasle-irakasle, kazetari, idazkari, ikasliburugile, idazle, zuzentzaile eta itzultzaileen buruhaustek konpontzeko gai izan behar du.

Gaur egun batasuna zertan dugun eta desadostasuna zertan haute-man ondoren, desberdintasunak ezabatu nahi ditugu —forma batzuk aukuratu edo hobetsi eta besteak baztertu edo albo-aldaera gisa eman, alegia— eta horretarako irizpideak behar, jakina, h.d. arauaren iturburuaz filosofia argia izan behar. Horixe izango da, hain zuzen, txosten honetan aztertuko dena.

### 3. Hitz-zerrendaren edukina, tamaina, burutzeko epeak

Goian aipaturiko erabiltzaileen beharrei erantzun egokia emateko, ondoko hitzek agertu behar dute zerrendan hasiera-hasieratik: batetik, euskal hitz-altxorren muina, atzoko eta gaurko euskararen hiztegi-oinarria, osatzen duten elementu lexikalak; bestetik, berriz, EEBSko corpusean aintzakotzat hartzeko presentzia dutenak, hiztun horiek erabili ohi dituzten hiztegi gehienetan ageri direnak edo berek diotenez arazoak sortzen dizkieten formak. Horiek bait dira, gutako bakoitzak izan ditzakeen iritzi subjektiboak gorabehera, gaurko batezbesteko erabileraren adierazgarri eta baldintzapen.

Mutur batean, ohizko ondare lexikalekoak izanik, formaren aldetik inolako arazorik ez duten hitzak egongo dira: *abendu*, *aberats*, *abere*, *abiatu*, *adar*, *adiskide*, *etab.* Beste muturrean, berriz, azken orduko irentsi gabeko maileguak: *software*, *leasing*, *windsurf*, *rap* bezalakoak. Eta tartean goraxeago jarri diren adibideetan ikusten zirenen moduko zalantzak eragiten dizkigutenak, LEF batzordearen lanetan aztertu ohi ditugun hitz elkartu eta eratorriak, batzuk aspaldiko hitz-eraketako eta morfonologiazko legeak zuzen-zuzen betez osatuak eta besteak bitxiak eta hizkuntzalarriaren ikuspegitik nondik heldu ez dutenak. Diferentzia horien guztien gainera, bada, ordea, beste bat gehiago axola zaiguna: benetako hitzen, h. d., bizirik dauden, euskaraz egunero-egunero erabiltzen diren hitzen eta alegiazkoen, hots, *diren* gauzen munduan ez baina norbaitek *izan*

*behar luketen* gauzen munduan jartzeko amestu zituen edo amesten dituenen artekoa. Gizaki guztiak, argalak eta lodiak, konkordunak eta artezak, zaharrak eta jaioberriak, Jainkoaren umeak garen bezala, bizirik dauden hitz guztiak dira euskaldungoaren umeak, euskal hitzak, aztertu beharrekoak eta, arazoak baldin badituzte, maitekiro tratamenduan jarri beharrekoak.

Zenbat hitzeko zerrenda egin behar dugu eta noizko? Zerk baldintzatuko du onespene-eta argitalpen-abiadura? Zer burutu behar dugu 1993ko kongresurako? Hara hor hiru galdera, eta galdera hainbat erronka.

Gure ustez zerrendaren tamaina premien arabera erabaki behar da. Itxurak egitea litzateke motz geratzen den hiztegi bat egitea. Ez dago hiztegi txarragorik, erabiltzailea, bilatzen duen argitasunik gabe uzten duena baino. Bizpahiru aldiz erantzunik gabe uzten badu, bereak egin du, aintzakotzat hartua ez izatera kondenaturik dago.

Zehatz-mehatz zenbat sarrera behar diren esatea ez da erraza, baina arrazoi batzuk emango ditugu proposatuko dugun zifra justifikatzeko:

1) Gogoan izan behar dugun batezbesteko erabiltzaileak bertan aurkitu behar ditu: irakasmaila ertainetako ikasketetan edo eguneroko albisteetan ohizkoak diren hitzak eta esapideak; edo publiko zabalarentzako kultur eta kirol-ekitaldietan, irrati- eta telebista-saioretan, eliz funtzioetan, familiakoen eta adiskideen gutun-trukean, salerosketa eta administrazioarekiko harreman arruntetan, enpresa eta elkarteetako ohar eta antzeko mailako idazkietan agertu ohi direnak.

2) Korritzen duten hiztegien tamainak eta hauen erabilgarritasuna adierazgarri dira. Honela, *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*-k, bere xumean (izenburuak berak erakusten duenez) 1.784 hitz ditu, Arantzazuko 1968ko zerrendak 2.000 inguru dauzka, *Euskararako hiztegia*-k 1. edizioan 13.236 zituen, bigarrean (*Euskararako hiztegia. Oinarrizkoa*) 16.427ra iristen da. *Hauta-lanerako euskal hiztegiak*, amaitu gabekoa den arren, baditu dagoeneko, *loratze* hitzeraino, 20.000 sarreratik gora. Bukatzerako 40.000ra inguratuko dela espero daiteke.

Hiztegi honen sarreran behin eta berriz esaten da “(...) hitzen bat ez sartzearekin ez dugu adierazi nahi hori euskaraz ezin erabil daitekeenik: delako hitz horri buruzko kontuak, gure ustez, ez daudela oraindik orain aski garbi aditzera eman nahi dugu, besterik gabe”, “(...) nahiago izan dugu zain gelditu gauzak argitzen diren bitartean”, “(...) duda-mudak nondik nora jotzen duten ikusi bitartean hobe iruditu zaigu etsi etsian erabakirik ez hartzea”. Urrats hauxe da, hain zuzen, zalantzak gainditze-koa, alegia, oraingoan eman beharko genukeena.

Azken urteotako beharrak eraginda sortzen eta ohizko bihurtzen ari zaizkigun hitzak asko dira: *ikusentzunezko, dinamizatzaile, erakundetu,*


*gainegitura, azpibatzerde, azpimarragarri, eskubaloi, aldagela, irakurgailu, eskiatzaile, etab.* Honelako hitz askok lekua behar dute hiztegian.

Horregatik, hurrengo bost urteetan gutxienez 25.000 forma bateratuko zerrenda batera jo behar litzateke, eta, ahal dela, zifra hori gaintzera. Bai tradizio zaharrean bai gaurko erabileran maiztasun handia duten hitzetatik, euskal hitz altxorraren huna osatzen dutenetatik nolabait esateko, abiatu beharko luke zerrendak eta beti ere kezka eta zalantzarik larrienak sortzen dituzten hitzen arazoak ebazten saiatuz.

Noizko eta nola iritsi gaitzkeen helburu hau betetzera zailagoa da esaten, baina esan beharra dago, erantzunkizunari itzuri egin gabe. Seguraski zerrendaren eta zalantzazko hitzen txostenen prestakuntza baino astiroago joango da eztabaida-batzordearen lana, eta hau izango da erabakiorra epea mugatzeko garaian. Batez ere, batzordearen lan-prozedura eta honi aurkeztuko zaizkion txostenen egitura dira ongi definitu beharrekoak. Horretaz aurreraxeago egingo ditugu proposamenak.

Datozen bost urteetan lana burutzen ahalegindu beharko genuke luzamendutan ez ibiltzeko, horretarako baliabideak eskuratzen badira eta eztabaidak alferrik ez luzatzeko moduko prozedura bat errespetatzen ahalegintzen bagara behintzat.


Ondoko kronograma proposatuko genuke:



- ① EEBS-1 lematizazioa bukatu
- ② 1988-1991 bitarteko corpus-zatia eskuratu, hustu eta lematizatu
- ③ Bost urteko hiztegi-langintza hori aurrera eramateko prestakuntza
- ④ 1993ko kongresurako lehen zerrendaren prestakuntza eta aurkezpena
- ⑤ 25.000 hitzeko zerrenda osatzeko lanak

#### 4. Hiztegi batuaren batzordearen osakera eta lan-prozedurarako proposamenak

Laurgaineko bilkuran eta ondoren entzundako iritzien arabera, honako eskema hau izango litzateke egokiena:



UZEIko lantaldeak, nagusi-nagusiki OEHko eta EEBSko corpusetan oinarrituz, hitz-zerrendak eta —beharrezkoa litzatekeen kasuetan— txostenak prestatuko lituzke Hiztegi batuaren batzordeari aurkezteko. Bestalde, Hiztegi batuaren batzordeak hainbat iritzi-emailei (euskaltzain, idazle, irakasle, itzultzaile, etab.) gutun bana zuzenduko lieke, kritikarako bidaliko litzaizkiekeen zerrendak aztertu eta iritzia idatziz eman dezaten eskatuz, eta beren eguneroko praktikan izaten dituzten kezken eta hutsuneen berri UZEIko lantaldeari aurkezteko aukera eskainiz.

Zerrendak eta txostenak aztertu eta eztabaidatu ahala, hitz onartuen zerrenda handituz joango litzateke. Argitu beharreko zerbait balego, UZEIko lantaldeari informazio osagarria eskatuko lioke batzordeak. Onarturiko zerrendak iritzi-emailei igorriko litzaizkieke kritikarako. Hauen erantzunak jasotakoan, batzordearen iritzi aintzakotzat hartzekoak liratekeenak UZEIko lantaldeari pasako litzaizkioke. Onartu eta kritikaturiko zerrendak Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrera joango lirateke behin-betiko oniritzia eta argitaratzeko baimena jasotzera. Azken onarpen honetara iritsi baino lehen, gorago esan den bezala, euskaltzain guztiak izango dituzte

eskueran zerrendak eta txostenak, eta denek izango dute aukera idatzizko oharrak Hiztegi batuaren batzordearen bilkuretan aurkezteko eta azalpenak egiteko. Horrela, azken onespenerako xeheki eta hurbiletik aztertuak izan ditzakete euskaltzainek zerrendok eta osoko bilkuretan ez da hitzen banan banako saio astunen beharrik izango.

Hiztegi Batuaren batzordearentzat honako osakera hau iradokiko genuke:

- Hiztegegintza-batzordearen buru eta Euskara Batuko batzordearen partaide gisa Ibon Sarasola.
- OEH lantzen duen taldeko Iñaki Segurola.
- Hiztegegintza-batzordearen idazkari den Mikel Zalbide.
- LEF batzordearen buru bezala Miren Azkarate.
- Iparraldeko hiztegia ongi ezagutzen hango partaide bat.
- Gehien korritzen duten hiztegien egileen artetik Xabier Kintana eta Luis Baraiazarra.
- UZEIko lantaldeko bi lagun.
- Idatzizko oharrak aurkeztera azaldu nahi duten euskaltzain osoak.

Proposatutako prozedura erabiliz kronograman jarri ditugun helburuak bete nahi baldin badira, batzorde honek hilean behin bildu eta bi egun osoko saiotan 500 hitzeko zerrenda bat eztabaidatu eta onartu beharko du aldiko.

Xehekiago esanik, araudi gisako bat jarraituko luke batzordeak bere lanean (bidenabar esan, behar hainbeste eskatu beharko zaie geroko iritzi-emallei):

1. Batzorde honi hitz-zerrendak eta hauetan arazoak dituzten hitzei buruzko txostenak aurkeztuko dizkio UZEIko lantaldeak eztabaidarako. Hauetan, ortografi forma soilaz gain, beharrezkoa ikusten denean, beste hainbat argibide emango da aditz-erregimenaz, kategoria gramatikalaz, euskalki arteko banaketaz, erregistroaz. Kontuan izango dira aditz-esapideak, eta baita hitz elkartuak eta bustiduradun formak lexikalizaturik daudenean.

2. Aurrean izango duen informazioa bezala, batzordearen ihardupideak bera ere ahalik eta formalizatuena izatea komeni da:

- 2.1. Moderatzaile eta idazkari bana hautatuko dira.
- 2.2. Idatziz aurkeztuko dira txostenei dagozkien oharrak.
- 2.3. Txosteneko beste arloei erantsi ahal izateko moduan egingo dira oharrak: labur eta argi.

2.4. Txostenean txertatu nahi diren datuak dokumentatuak izango dira ahalara.

2.5. Informazio gehiago, edo bestela eraturia, behar dela erabakiko balitz, UZEIko lantaldeari itzuliko zaio txostena, berregin dezan.

2.6. Aski informazio badela erabakitzean, botoz emango du batzordeak bere iritzia.

2.7. Botoak jaso egingo ditu txostenak, eta informazio berri gertatuko dira ondoko azterlan eta kontsultetarako, adostasun-mailaren lekuko izanik.

## 5. Txostenak prestatzeko irizpideak, haien egitura eta eztabaida

Aztergai osoa denbora-muga horien barruan (5 urte) eta erritmo horretan (500 hitz hiler) landu nahi bada, ihardupidea ongi zehaztu beharra dago. Bi alderdietatik zehaztu ere: UZEIko lantaldearen egitekoak argi eta garbi zedarriz eta batzordearen jokamoldea gorago aipatu bezala edo bideratuz.

Lehen alderdiari dagokionez, auzigai diratekeen formen inguruko informazioa zein izango den eta nola aurkeztu behar zaion erabaki behar du, hasteko, Hiztegi batuaren batzordeak. Bere garaian egingo du, noski; nolana ere, bertotik aurrera daiteke informazio horrek, gutxieneko kontuan, ustiatuko dituen iturrien eskema:

1. OEH eta EEBS corpusetako informazioaren sinopsia.
2. Tradizio lexikografikotik hainbat datu: OEH, DRA, Azkue, Lhande, P. Mugika; *Hiztegia 2000*, *Euskararako Hiztegia*, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Junes Casenave-rena, etab.
3. Azalpen teoriko-sistematikoak: FHV, EGLU, etc.
4. Erabileremu jakinetako hiztegi arautuak.
5. Bestelako informazio osagarriak: hustuketa partzialak, etab.

Batzordeak berak finkatu beharko ditu, jakina, bere lan-irizpideak, baina aurrera ditzakegun neurrian, puntu batzuk eskainiko ditugu hemen, lehen hurbilketa gisa.

Lexikoaren batasunerako erreferentzia nagusia, batezbesteko erabile-  
ra da (idatzizkoa, guri dagokigunean).

Hitz baten erabileran batasunik ez dagoenean, lehiari dauden formen artean aukera egiteko konparazioz jokatu behar da. Batzordeari aurkeztuko zaizkion txostenak horixe izango dira, hitzen aldaera desberdinen arteko konparazio sistematikoa adierazteko dokumentu formalizatuak.





Bi forma lehiakideren artean batek erabateko nagusitasuna agertzen badu beti eta edonon, ez dago arazorik, huraxe da forma batua. Hori gertatzen ez denean, egoera desberdinak aurki ditzakegu. Hauek definitzeko lehen hurbilketa gisa honako kasu hauek ematen ditugu hemen, jakinik, lanean hasi orduko, askoz sailkapen eta ebazpide zehatzagoak landu beharko dituela batzordeak:

- Garai batean nagusi zen formari gero beste bat gailendu zaiola. XX. menderako ordezkapen hori burutua baldin bazen, gure egunotarako onartu egingo da. XX. mendearen barnean batasunaren hasiera baino lehen burutua baldin bazen ere kasua aurrekoaren antzekoa izan daiteke. Ordezkapena berriagoa baldin bada, tradiziorik handiena duen forma indartzera joko da.

- Forma batek baino gehiagok antzeko indarra erakutsi baldin badute denboran zehar eta berdintasunak oraindik ere irauten baldin badu, beste era batzuetako arrazoiei begiratuko zaie: ertzetako euskalkiak bat ez datozenean, erdikoei pisu handiagoa emango zaie, formaren erregularitasuna kontuan izango da, erabilera-maila markatuetan erabiltzen diren formak baztertzeraz joko da eta egungo erabilera sektoriala aintzakotzat hartuko da.

- Gaur egun indarrean dagoen tradizio luzeko forma baten ondoan beste bat indartzen ari baldin bada, zaharrenari aitortuko zaio nagusitasuna berriagoaren kaltetan, aurreko puntuan ageri direnen moduko oso arrazoi pisuzkoek besterik eskatzen ez badute behintzat.

- Lehian dauden formak aztertzerakoan, ezin ahaztuko dira forma bakoitzaren beste forma senideak eta edukin semantikoak formarekin batzuetan izaten dituen erlazioak.

5.2. Forma lehiakideen arteko auziak argitzea du xede oraindaino esandakoak. Forma horien ondoan izango da, ordea, bestelako eztabaidagarik: labur esateko, gorago aipatuak ditugun erabileremu berrietan agertuz doazen euskal forma berri eta maileguak, euskara idatziaren tradizio zaharrenak ezin berma ditzakeenak eta idazleriaren erabilera berriagoetan, berriz, batasun-maila apal(ago)a ageri dutenak. Horietako zeintzuri emango zaie sarbidea gure zerrendan, eta zein baztertuko dira (edo, onenean, forma “hobe” batez ordezkatu)?

Euskaltzaindiak agertua du jadanik maileguen uholdearekiko beldurra; baita euskal hitzak zeintzuk diren (eta zeintzuk ez diren) mugatzeko saioa egin ere, horretarako irizpideak irakatsiz (ik. *Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz*: Bilbo, 91.04.26). Horko hiru irizpideetatik bi hitz zaharrei dagozkienez (“hitzaren antzinatasuna” eta “hitzaren erabilera idazle zaharretan”), hirugarrenak behar du izan erabakiorra aipatzen ari garen forma berrientzat (“Agiria”ren hitzetan esateko, “ezinbestean erabiltzen diren”entzat): “hitzaren hedadura”.

Hitzaren hedadura hori neurtzeko, berriz, bi parametroz baliatuko gara:

1. Delako formak euskara idatzian duen agerpen-maiztasuna neurtu behar da lehenik, eta horretarakoxe tresna bezala pentsatu eta burutu da EEBSko corpusa. Ezinbesteko abiapuntu honen osagarri, erabil daiteke noski beste hainbat informazio-iturri: testuetatik egindako beste hustuketak, adibidez, edo gaurko euskaldungoak maiz eskuztatzen dituen hiztegiak, edo sektoreen araberako premien eta erabileren lekuko diren materialak, etab.

2. Bi erdararen eraginaren menpeko garenez euskaldunok (erabile-remu berriotan inon baino gehiago), arreta handiz zaindu behar da horietatik hartzen ditugun maileguen forma-bikoiztasunaren korapiloa, forma nazioarteko(en)a hobesteko, hots: gaztelania eta frantsesa zein bere bidetik dabilzanean, guk zer eta nola jaso behar dugun erabakitzeko.

Hedadurarekin zerikusi zuzena izango du, bestalde, formaren osae-rak: hitz elkartu eta eratorriak aztertu eta proposatzean, oso gogoan izan beharko dira, adibidez, LEF batzordea egiten ari den azterketa teoriko-sistematikoak, forma jator eta paradigmari ongi egokituak indartzeko, noizean behingo "iratxo"en kaltetan.

## 6. Beharrezko baliabideak

Ondoko bost urteetan egin beharrekoen irudi bat eskaini dugu, bai aztergaiari eta bai azterbideari dagokienean. Berehalako batean landu eta aurrikustekoak diren beste alor batzuk aipatuko ditugu bukatzeko, gaingiroki bederen.

6.1. UZEIko lantaldeak eroso eskuratzeko moduan izan behar du oinarriztat erabiliko duen informazioa. Lan tekniko korapilotsuari dago-kio hori definitzea, baina izango dituen eskakizunak behintzat zirriborra daitezke: euskarri magnetikoan dauden datuak lekualdatu eta bateratu behar dira lehenik, adibidez, OEHko eta EEBSko corpusak bildu eta sor litezkeen gorabehera juridiko eta informatikoak argitu, datu-basea egitu-ratu, DBMSaren eta hardwarearen aukera egin, datuak sartu, etab.

Euskaltzaindiak ongi baderitzo, UZEI arduratuko da informatiza-zioaz eta horretarako baliabide eta ordainbideak bilatu eta eskuratzear.

6.2. Giza baliabideak ere zehaz ditzakegu bertotik. Batetik, UZEIko lantaldearen osaera eta dedikazioari dagokionez, arduradun bat, batzor-dearekiko eta iritzi-emaileekiko harremanak bere gain hartuko dituen pertsona bat, lauzpabost lexikografo eta zerbitzuetako beste lagunak ariko dira prestalanean, guztira 8 pertsonaren egun osoko iharduna eskai-

niz. Informatizazioan bezala, honetan ere UZEI arduratuko da diru-baliabideak eskuratzeaz.

Bestetik, eta zehatz-mehatz mugatzerik ez daukagun arren, argi ohar-terazi nahi dugu Hiztegi batuaren batzordeari eskatuko zaion lan-ordu askotako dedikazioa: 9 lagun izango dira eta hilean behin bi egunez bilduko; eguneko 7-8 ordu emango dituzte eta gainera batezbeste 500 bat formaren zerrenda-txostenak landuko bileratik bilerara nork bere aldetik. Ohargarria da horretan eskaini beharko duten ordu-kopurua; ohargarria, halaber, dedikazio horren kostua Euskaltzaindiaren kontura izango litzatekeela.

Bildu beharrekoak nor diren kontuan izanda, Donostia proposatuko genuke bilera-toki bezala. Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkariari laguntzaren bat edo beste eskatu beharrean aurki daiteke batzordea, dela txostenak fotokopiatu eta banatzeko, dela bilera-lekuaz arduratzeko, eta antzeko eginkizunetarako.